

NAFARROAKO

Aldizkari Ofiziala

POLIZIA ETA UDAL AGENTE IZATEKO OPOSIZIOA

2014ko 182. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren separata, irailaren 17koa

DEIALDIA, Barneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 29ko 222/2014 Ebazpenaren bidez onetsia, oposizio bidez betetzeko Barañaingo Udaltzaingoko polizia izateko 3 lanpostu, Baztango Udaleko lanpostu 1, Burlatako Udaltzaingoko polizia izateko 4 lanpostu, Cascanteko Udaleko udal agente izateko 2 lanpostu, Lizarrako Udaltzaingoko polizia izateko 3 lanpostu, Uharteko Udaleko udal agente izateko lanpostu 1 eta Mendabiako Udaleko udal agente izateko lanpostu 1.

OINARRIAK

1.–Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da oposizio bidez betetzea Barañaingo Udaltzaingoko polizia izateko 3 lanpostu, Baztango Udaleko lanpostu 1, Burlatako Udaltzaingoko polizia izateko 4 lanpostu, Cascanteko Udaleko udal agente izateko 2 lanpostu, Lizarrako Udaltzaingoko polizia izateko 3 lanpostu, Uharteko Udaleko udal agente izateko lanpostu 1 eta Mendabiako Udaleko udal agente izateko lanpostu 1. Txandak hauek izanen dira:

a) Txanda irekiko lanpostuak:

Barañaingo Udala: polizia izateko lanpostu 1.

Baztango Udala: polizia izateko lanpostu 1, euskararen C-1 maila izateko baldintzarekin.

Burlatako Udala: polizia izateko 2 lanpostu (puntuazio osagarria euskaraz jakiteagatik).

Cascanteko Udala: udal agente izateko lanpostu 1.

Lizarrako Udala: polizia izateko lanpostu 1 (puntuazio osagarria euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakiteagatik).

Uharteko Udala: udal agente izateko lanpostu 1, euskararen C-1 maila izateko baldintzarekin.

Mendabiako Udala: udal agente izateko lanpostu 1.

b) Igoera txandako lanpostua, Nafarroako Administrazio Publikoko langileendako:

Barañaingo Udala: polizia izateko 2 lanpostu.

Burlatako Udala: polizia izateko 2 lanpostu (puntuazio osagarria euskaraz jakiteagatik).

Cascanteko Udala: udal agente izateko lanpostu 1.

Lizarrako Udala: polizia izateko 2 lanpostu (puntuazio osagarria euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakiteagatik).

Udal bateko igoera txandako lanpostu hutsa udal horretako txanda irekikoari gehituko zaio, bete gabe gelditzen bada hautaprobak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa ez erdiesteagatik.

Halaber, udal bateko igoera txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok gaintzen badituzte probak, txanda horretan probak gainturik ere lanpostuak eskuratzen ez dituztenek aukera izanen dute udal horretako txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera (jakite mailako hautaprobetako puntuazioa, proba fisikoetako eta proba psikoteknikoetako baturik, bai eta, hala balegokio, euskara eta/edo Europar Batasuneko hizkuntzak jakiteko puntuazio osagarria ere, handienetik txikienerako hurrenkeran).

Deialdiaren xedeko lanpostuen kopurua handitu daiteke hautaketa prozesuan, betiere 7.4.3 oinarrian xedatuarekin bat deialdi honetan aurreikusten den lanpostu hautaketa egin baino lehen. Lanpostu kopuruaren handitzean aplikatzeko izanen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.3 artikulua (haren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina).

Izendatzen diren izangaiek polizien eginkizunak beteko dituzte, Nafarroako Polizie buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean ezarritakoak, eta foru lege horretan ezartzen diren mailetako C mailaren barnean geldituko dira sailkatuak.

2.–Aplikatu beharreko arauak.

Prozedura hau ondoko arauak erregulatuko dute: Nafarroako Polizie buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea; Nafarroako Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretua; Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua; Nafarroako Administrazio Publikoetan Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duen ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretua; eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen organoetako langileen arloko eskurantzak zehazten dituen martxoaren 25eko 30/2005 Foru Dekretua; aplikatu beharreko gainerako arauak eta deialdiaren oinarriak.

3.–Izangaiek bete beharreko baldintzak.

3.1. Txanda irekia.

Oposizio honetan txanda irekian onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.
- b) Adinez nagusia izatea eta 35 urte bete gabe izatea.
- c) Batxiler-titulua, bigarren mailako lanbide heziketako titulua edo baliokideren bat izatea.

Atzerrian eskuraturiko tituluak izanez gero, eskabideak aurkezteko epea betetzen den egunean haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izan beharko da.

d) Lanpostuak berezkoak dituen eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea eta arrazoi medikoengatik baztertzeko moduan ez egotea. Arrazoiak deialdiaren IV. eranskinean agertzen dira.

e) Gizasemeek 1,65 metroko garaiera bederen izatea, eta emakumezkoek 1,60 metrokoa.

f) Inoiz kondenarik jaso ez izatea delitu bat dela kausa, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua ere, eta ez egotea desgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauak jarraituz.

g) Gutxienez A edo A 2, B eta BTP motako ibilgailuak gidatzeko baimenak izatea.

h) Aldean armak eramateko eta, behar denean, erabiltzeko konpromisoa. Eskatzailearen aitoren bidez adieraziko da.

3.2. Txanda murriztua.

Txanda irekiko izangaiei eskatutako baldintzez gain, honako baldintza hauek ere bete behar dituzte:

Igoera txandako izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako edozein administrazio publikotako langile finkoa izatea, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari transferitutako Justizia Administrazioari zerbitzuei atxikitako langile finkoa, eta Administrazio

Publikoetan bortz urteko antzinasun onartua izatea, Nafarroako polizia kidegoetako kideen kasuan izan ezik, horiek frogatu beharko baitute zortzi urtez egin dituztela zerbitzuak kidego horietan.

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarri dena aplikatuz, igoera txandan parte hartzeko gainerako baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek ere txanda horretan parte hartzen ahalko dute.

- b) Abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.
- c) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo apalagokoa izatea.

3.3. Baldintza horiek denak eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen eta lanpostuaz jabetu arte bete beharko dira, 3.1.g) eta 3.1.b) oinarrietakoak izan ezik. Lehenbizikoari dagokionez, oinarritzko prestakuntza ikastarorako (deialdiko 7.4.4 atalean aipatua) izangaien behin-behineko zerrenda jendaurrera ateratzen den egunerako bete beharko da, eta, bigarrenari dagokionez, aski izanen da eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen betetzea.

4.–Eskabideak.

4.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak non eta noiz aurkeztu behar diren.

a) Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izanen da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik hasita.

b) Eskabideak Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, 31002 Iruña) edo erregistro horretako beste edozein bulegotan aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz.

c) Eskabidearen eredu ofiziala deialdiaren I. eranskinean ageri da. Interneten bidez lortzen ahal da, www.navarra.es helbidean, bai deialdia argitaratzen deneko Nafarroako Aldizkari Ofizialetik abiatuta, bai Zerbitzuen Katalogoko Enplegu Publikoan dagoen deialdiaren aiputik abiatuta.

4.2. Izangaiek ekarri beharreko gainerako dokumentazioa.

Bat.–Osasun ziurtagiri ofiziala, III. eranskinean agertzen diren proba fisikoak egiteko gaitasuna duela egiaztatzen duena.

Bi.–Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako Nafarroako Gobernuaren kontuan 25 euro ordaindu izanaren ziurtagiria.

Halaber, salbuetsita daude hautapoben deialdia egin aitzin hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaile gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatetik goitiko diru-sarrerarik ez izatea hilabetero.

Lan-eskatzailea dela frogatzeko, Enplegu Bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ez eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikaturiko kasuetan izan ezik.

Orobat, hileroko lanbide arteko gutxieneko soldatetik goitiko diru-sarrerarik ez dutenak ere salbuetsita egonen dira tasak ordaintzetik; interesdunak erantzukizuneko aitorten baten bidez frogatu beharko du. Aitorten eredia Nafarroako Gobernuko Informazio Bulegoan eskuratzen ahalko da edo, bestela, Internet bidez, arestian emandako helbidean.

Salbuetsita dagoela frogatu ezean, tasa ordaintzen ez badu, izangaia baztertu eginen da.

Hiru.–Nortasun Agiri Nazionalaren bi aldean fotokopia konpulsatua.

Lau.–Deialdi honetan eskatzen den titulu akademikoaren fotokopia konpulsatua.

Bortz.–Igoera txandako izangaiek abiaburuko lanpostua, maila eta bertan duten antzinasuna frogatzen dituen agiria aurkeztu beharko dute, zein administrazioetakoak diren, hartan ziurtagiriak emateko eginkizuna esleitura duen organoak luzatua.

Sei.–Ondoko hizkuntzak jakitearen gaineko ziurtagiria: euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana.

4.3. 4.1 eta 4.2 ataletan aurreikusitakoa betetzen ez bada, izangaia kanporatu eginen da.

4.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

4.5. Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira, noiznahi ere.

5.–Onartuen behin-behineko zerrenda, erreklamazioak eta behin betiko zerrenda.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, Barneko zuzendari nagusiak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko, ohartaraziz hurrengo hamar egun balioduneko epean interesdunek erreklamazioak egin ditzaketela organo dei egileari zuzenduak eta, akatsik baldin badago, haiek zuzendu.

Ezarritako epean parte hartzeko eskaerarik aurkezten ez bada, Barneko zuzendari nagusiak deialdia bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta, kasua bada, haiek ebatzitakoan, Barneko zuzendari nagusiak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

6.–Kalifikazio epaimahaia.

6.1. Osaera.

Kalifikazio epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

–Epaimahaiko burua: Pedro Recarte Gaztambide, Barne Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko zuzendaria.

–Ordezkoa: Gerardo Goñi Ilundáin, Nafarroako Foruzaingoko burua.

–Epaimahaiko kidea: Juan Antonio Castro Moraza (Barañaingo Udala), parte hartzen duten udalen orde.

–Ordezkoa: Jaime Vidaurreta Fernández (Lizarrako Udala), parte hartzen duten udalen orde.

–Epaimahaiko kidea: Pilar Zapico Revuelta, Barne Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Kudeaketa eta Administrazio Zerbitzuko zuzendaria.

–Ordezkoa: Ángel Labiano Mangado, Barne Zuzendaritza Nagusiko Udaltzaingoak eta Segurtasun Publikoa Koordinatzeko Ataleko burua.

–Epaimahaiko kidea: David Ganuza Orzain, parte hartzen duten udaletako langile batzordeen orde.

–Ordezkoa: Javier Canabal Unciti, parte hartzen duten udaletako langile batzordeen orde.

–Mahaikide-idazkaria: José María Canales Arana, Barne Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Ataleko burua.

–Ordezkoa: Olga Virginia López Vera, Barne Zuzendaritza Nagusiko Administrazio Publikoko teknikaria (arlotik juridikoa).

6.2. Eraketa eta jarduna.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean eratuko da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide idazkariak edo haien legezko ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

Administrazio prozeduraren arauetan abstentziorako aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta hori jakinarazi deialdia egin duen organoari.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

Epaimahaiak aholkulari adituak hartzen ahalko ditu. Aholkulari horiek dagokien espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

7.–Oposizioaren nondik norakoak.

7.1. Oposizioa 2014ko abenduan hasiko da.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira ariketak hasteko tokia, eguna eta ordua.

7.2. Oposizioak hautapenaldia izanen du lehenik, eta horretan probak baztergarriak izanen dira, II. eranskinetako gaien inguruan, egoera fisikoaren inguruan, proba psikoteknikoen eta osasun proben inguruan, eta, hala balegokio, euskara, ingeleza, frantsesa eta alemana jakitearen inguruan, deialdiaren 8.4 oinarrian xedatuarekin bat; bigarren fasean, berriz, oinarritzko prestakuntza ikastaro bat gainditu beharko da.

7.3. Hautapenaldiko proba bakoitza zuzendu ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean, gainditu duten eta bazterturik gelditu diren izangaien zerrenda, lortutako kalifikazioekin eta, halaber, hurrengo proba egiteko tokia, eguna eta ordua, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago.

Hautapenaldiko probetarako deialdi bakarra egingen da eta izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Iragarritako egun, ordu eta lekuetan agertzen ez diren izangaiek oposiziotik kanpo geratuko dira, oro har.

7.4. Prozeduraren faseak, dokumentazioa, ikastarorako behin betiko onarpena, praktiketako funtzionarioen izendapena eta prestakuntza ikastaroa.

7.4.1. Prozeduraren faseak:

Hautapenaldian proba hauek izanen dira:

a) Proba teorikoa.–Test motako bi ariketa egin beharko dira, II. eranskineko gai zerrendako gai buruzkoak; ariketa bat zati orokorrari buruz, eta bertzea zati bereziari buruz.

b) Gaitasun fisikoaren probak.–III. eranskinean azaltzen diren ariketa fisikoak egin beharko dira, eta haietako bakoitzak balio du jendea baztertzeko eta egiten den markaren arabera puntuatzeko. Epaimahaiak zozketa bidez ezartzen duen hurrenkeran egingen dira proba honetako ariketak.

Horietan izangaiei altuera neurtuko zaie, 3.1.e) atalean eskatutako baldintza betetzen duten egiaztatzeko.

Izangai guztiak dopinaren kontrako kontrola egitera behartuta egonen dira, ariketak egin bitartean edo bertze noiznahi, epaimahaiak hala eskatuz gero. Praktika debekatuak atzeman edo egiaztatzeko analisiak dagokion organo espezializatuak egingen ditu. Horrenbestez, debekatuta daude Kiroletako Kontseilu Gorenak 2013ko abenduaren 20an emandako Ebazpenaren I. eranskinean ageri diren substantzia, gai farmakologiko, dopin metodo eta manipulazioak (kirolean debekatutako substantzien eta metodoen zerrenda, 2013ko 312. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, abenduaren 30ean) eta, bestalde, indarra dute Kiroletako Kontseilu Goreneko Lehendakartzak kirolean debekatuta dauden metodo eta substantzien zerrenda onesteko 2006ko abenduaren 21ean emandako Ebazpenaren IV. eta V. eranskinek (animaliengan, galgoengan eta lehiaketa hipikoetan debekaturik dauden substantzien eta metodoen zerrendak dituztenak, hurrenez hurren), Osasuna Babesteari eta Kiroleko Dopinaren kontra borrokatzeari buruzko azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean. VI. eranskinak ere indarrean segituko du, kirolean dopina erabiltzearen kontrako UNESCOren Nazioarteko Konbentzioaren II. eranskinari aurka egiten ez dion guztian. Bazterturik geldituko dira kontrol horretan emaitza positiboa ateratzen duten izangaiek eta, orobat, kontrola egitea onartzen ez dutenak.

c) Gaitasun psikoteknikoaren probak.

Proba psikoteknikorako, hainbat proba egingen dira, izangaiek lanpostuaren profil profesionalaren eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren zehazteko. Proba hauek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko ditu eta haren balorazioak lotesleak izanen dira epaimahaiarendako.

Probak egin aurretik Araubide Juridikoaren eta Langileriaren Zerbitzuko zuzendariak lanpostuaren profil profesionala onetsiko du. Onespena epaimahaiari jakinaraziko zaio.

Proba fisikoak gainditzen dituzten izangai guztiek egingen dituzte gaitasun psikoteknikoaren probak.

d) Osasun probak.

Proba psikoteknikoak gainditzen dituzten izangaiei proba medikoak egitera deituko zaie, gaitasun psiko-fisikoa frogatzearren, deialdiko 3.1 ataleko d) letran ezarritakoari jarraikiz. Epaimahaiak erabakiko du zenbat izangairi deitu, baina eskaintzen den lanpostu kopurua baino gehiago izan beharko dira. Proba hori Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak egingen du edo, hala behar bada, behar bezalako kreditazioa duen kanpoko entitate batek, eta horren balorazioak lotesleak izanen dira epaimahaiarendako.

7.4.3. Plaza kopurua handitzea.

Udalek Barneko zuzendari nagusiari eskatzen ahalko diote deialdiaren xedeko lanpostuen kopurua handitzeko, deialdia onetsi zenetik sortutako premiengatik, betiere lanpostu hutsak hautatzeko ekitaldia (hurrengo oinarrian aurreikusia) egin baino lehen.

Nolanahi ere, adierazi beharko dira eskaeran prozesuan sartu beharreko lanpostu huts berrien hizkuntza-eskakizunak eta beste edozein baldintza.

Lanpostu hutsen kopurua handitzen bada, deialdiaren xedeko lanpostu hutsen kopurua handitzen duen ebazpena Nafarroako Gobernuko iragarki oholean eta haren web orrian argitaratuko da.

7.4.4. Lanpostuak aukeratzea.

a) Hautaketa prestakuntza ikastaroaren aurretik eginen da, horrela zehazki jakinen baita nor sartuko den bete beharreko lanpostuetan.

b) Epaimahaiak zazpi zerrenda paratuko ditu jendaurrean, udal bakoitzeko txanda irekiko izangai bakoitzari dagokion puntuazio osoa dakartenak, eta beste zazpi, berriz, udal bakoitzeko igoera txandakoei dagokienez.

Zerrenda bakoitza guztizko puntuazio altuenetik baxuenera ordenatuko da. Guztizko puntuazioa lehiaketaren elementu guztietan lortutako puntuazioen batuketatik aterako da. Hurrenkera bera segituko da aipatu zonifikazioaren arabera sailkatutako lanpostu hutsen hautaketa ekitaldiak egiten direnean.

e) Ikastarorako behin-behineko onarpena.

Izangaien kalifikazioa burututa, aitzineko proba guztietan lortutako emaitzen arabera, epaimahaiak jendaurrean jarriko du prestakuntza ikastaroa egitera behin-behinekoz onartu direnen zerrenda. Deitutako lanpostu kopurua adina izangai sartuko dira zerrendan.

7.4.2. Dokumentazioa eta ikastarorako behin-behineko onarpena:

Oinarrizko prestakuntza ikastaroan parte hartu ahal izateko, ikastaro horretarako onartutakoen behin-behineko zerrenda Nafarroako Gobernuak iragarki oholean jendaurrean jarri eta handik hamar egun naturalean, izangaiek frogatu beharko dute deialdiaren 3.1 ataleko f), g) eta h) baldintzak betetzen dituztela. Horretarako, ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorrean, epaimahaiko idazkariari zuzendua:

–Deialdian eskatutako gidabaimenen aitzinaldeko eta gibelaldeko aldean fotokopia konpultsatua.

–Erantzukizuneko aitortpena, adierazteko ez dela doluzko delitu bat dela kausa kondenatua izan, ez eta administrazio publiko baten zerbitzuetatik baztertua, eta eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez dagoela, deusetan galarazi gabe delitu aurrekariaren deuseztapena aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako araei jarraikiz.

Araubide Juridikoaren eta Langileriaren Zerbitzuak Justizia Ministerioaren Zigortu eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiari eskatuko dio izangaiek aurrekari penalik ez dutela edo haiek deuseztu direla frogatzen duen agiria eta ofizioz erantsiko dio espedienteari.

–Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta Legeei men egin, eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

–Armak aldean izateko konpromisoa hartzeko erantzukizuneko aitortpena.

–Gizarte Segurantzaren txartelaren fotokopia konpultsatua.

–Hala izanez gero, deialdiaren 9.2 atalean aipatzen den aukeraz baliatu dela adierazten duen agiria.

Epaimahaiak, ikusirik izangaiek aurkeztutako dokumentazioa, hautapen prozesuan sortutako bajak zehaztuko ditu, halakorik balego. Lanpostuak berriz aukeratu dira eta, ondotik, oinarrizko prestakuntza ikastarora onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

7.4.3. Praktiketako funtzionarioen izendapena:

Polizia izateko oinarrizko prestakuntza ikastaroan parte hartzen duten izangaiek kasuan kasuko udaleko praktiketako funtzionario izendatuko dira, izangai bakoitzak egiten duen hautapenaren arabera, salbu aitzinetik Nafarroako administrazio publiko bateko funtzionarioak direnak.

Lanpostuen kopurua handituta, hasierako deialdiko lanpostuek ez zituzten baldintzak jasotzen badira, izangaiek, 10 egun naturaleko epe luzaezinean, lanpostu horien baldintzak edo merezimenduak frogatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Udal bakoitzak izangaiek atxikiko dizkio Nafarroako Segurtasun Eskolari eta izendapenak eginen ditu.

7.4.4. Oinarrizko prestakuntza ikastaroa:

Udaltzain izateko oinarrizko prestakuntza-ikastaroa Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen du, gainditu egin beharko da eta gobernatuko dute Nafarroako Segurtasun Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen irailaren 12ko 113/2005 Foru Dekretuak horren gainean ezarritako aginduek eta aplikagarriak diren gainerako xedapenek.

2007ko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen 29.3 eta 43.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, izangaien batek deialdian eskatutako ikastaroaren antzeko bat, Nafarroako Segurtasun Eskolak antolatua, egin badu, aski izanen da Nafarroako Segurtasun Eskolak ikastaro hori baliozkotzea. Hori frogatzeko egiaztagiri ofiziala aurkeztuko da, ikastaroen edukien berdintasuna edo baliozkotasuna frogatzen duena, eta baliozkotutako ikastaroan edo ikastaroetan lortutako kalifikazioak. Egiaztagiri hori interesdunak eskatuko dio Nafarroako Segurtasun Eskolari. Halaber, Nafarroako Segurtasun Eskolari dagokio bertze ikastaro eta diploma batzuk

osotasunean edo zati batean baliozkotzea, antzeko eginkizunak dituzten organismo publikoek eman dituztenean, edo Nafarroako Segurtasun Eskolak berak lehenago, betiere edukiak baliozkoak badira. Halakoetan, kasu bada, kalifikazioa ere emanen du.

Izangaiek, prestakuntza ikastaroak dirauen bitartean, C mailaren hasierako soldatari dagokion lantsaria jasoko dute, bai eta, hala badagokio, familia laguntza ere.

Bestetik, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko dira eta alta emanen zaie, salbu eta lehendik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen eskubide pasiboan beste araubide batean afiliatuta zeudenak, horrexetan segituko baitute.

Praktiketako funtzionario izateak ez du eskuratu nahi den lanpostuari dagokion eskubiderik ematen.

Ikastaroan baja emateak berekin ekarriko du oposizioaldian jarraitzeko eskubidea eta praktiketako funtzionarioaren izaera galtzea. Gertatzen denean, deialdia egin duen organoari jakinaraziko zaio. Baja hori epaimahaiak dagokion administrazio publikoari jakinaraziko dio.

Oinarritzko prestakuntza-ikastaroan behin betikoz onartuak izan baino lehen egindako osasun azterketaz gain, ikastaroa egin bitartean edo hura bururatutakoan izangaiek agintzen zaizkien osasun proba guztiak pasatu beharko dituzte, deialdiaren 3.1 d) atalean aipatzen den baldintza betetzen segitzen dutela frogatzeko. Proba horien bidez egiaztatzen bada baztertzeko arrazoirik badela, epaimahaiak aginduko du izangai horiek hautapen prozesutik kentzeko; ondorioz, praktiketako funtzionario izateari utziko zaio.

Prestakuntza-ikastaroa gainditu duten izangaiek, eta hautapen prozesuan gaitasun psikofisikoa galtzeagatik baja eman ez bazaie, praktiketako funtzionarioak izaten segituko dute lanpostuaz jabetu arte.

8.–Proben eta prestakuntza ikastaroaren balorazioa.

8.1. Lehenengo probak 100 puntuko balorazioa izanen du gehienez. Probak test motako bi ariketa izanen ditu, bata zati orokorraren gainean (50 galdera) eta bertzea zati bereziaren gainean (50 galdera). Galdera guztietan hiru erantzun eskainiko dira baina bat bakarria izanen da zuzena.

Ongi erantzundako galdera bakoitzak puntu bateko puntuazioa izanen du. Gaizki erantzundako galdera bakoitzak puntu erdiko balorazio negatiboa izanen du.

Proba honetako ariketa bakoitzean 50 puntu emanen dira gehienez.

Ariketa bakoitza gainditu eta baloratu ahal izateko, epaimahaiak kasuan kasuko ariketa hoberenari ematen dion puntuazioaren erdia edo hortik goitiko puntuazioa atera beharko da, eta bi ariketak gainditu beharko dira. Ariketa gaindituztat hartzeko, deialdiko oinarrietan ariketa horretarako ezarritako gehieneko puntuazioaren herena atera beharko da gutienez.

8.2. Gaitasun fisikoa neurtzeko ariketak bortz puntutik hamar bitarte baloratuko dira. Deialdiko III. eranskinean ezartzen diren gutieneko markak gainditzen ez dituzten izangaiei "Ez gai" kalifikazioa emanen zaie, eta orobat, dopinaren kontrako kontrolen batean positiboa ematen dutenei. Proba honek gehienez ere 50 puntuko balorazioa izanen du.

8.3. Proba psikoteknikoa zerotik berrogeita hamar puntura bitarte baloratuko da. Bazterturik geldituko dira gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten izangaiek.

8.4. Puntuazio erantsia hizkuntzak jakiteagatik.

Burlatako Udalari dagozkion lanpostuak:

Euskaraz jakiteagatik: 20 puntu bitarte.

Horretarako, EGA titulua edo beste titulu ofizial bat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliozkoa, izanez gero, aurreko atalean emandako gehieneko balorazioa jasoko da.

Titulu hori izan ezean, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da, A2 maila izanez gero 2/5, B1 izanez gero 3/5 eta B2 izanez gero 4/5. Titulu baliozkoek balorazio bera izanen dute. Bestela, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzarengatik gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/12 lortuko da.

Interesdunak aurkeztutako mailarik handiena baino ez da baloratuko.

Lizarrako Udalari dagozkion lanpostuak:

Euskaraz jakitea: 1,20 puntu A-1 mailagatik; 2,40 puntu A-2 mailagatik; 3,60 puntu B-1 mailagatik; 4,80 puntu B-2 mailagatik; eta 6 puntu C-1 edo EGA mailagatik.

Ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea: 1,14 puntu A-1 mailagatik; 2,28 puntu A-2 mailagatik; 3,42 puntu B-1 mailagatik; 4,56 puntu B-2 mailagatik; eta 5,70 puntu C-1 mailagatik.

Interesdunak aurkeztutako mailarik handiena baino ez da baloratuko hizkuntza bakoitzean.

8.5. Osasun azterketetan izangaiei “gai” edo “ez gai” kalifikazioa emanen zaie. “Gai” kalifikazioa lortzen ez dutenak bazterturik geldituko dira.

8.6. Prestakuntza-ikastaroa gainditzeko arlo guzti-guztiak gainditu beharko dira. Gainditzeko, ikastaroaren programan ezarritako gehieneko puntuazioaren %50 atera beharko da gutienez, arlo bakoitzean.

Prestakuntza-ikastaroan Nafarroako Segurtasun Eskolak epaimahaiari igorriko dizkion izangaien kalifikazioak lotesleak izanen dira epaimahaiarentzat.

8.7. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, hautapenaldian lortutako puntuazioei prestakuntza-ikastarokoak gehituko zaizkie.

9.–Udaltzainen izendapena eta jabetza hartzea

9.1. Izendapena.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoan, kasuan kasuko udaleko organo eskudunak oposizioa gainditzen duten izangaiak udal horretako polizia edo udal agente izendatuko ditu, txanden eta lortutako azken puntuazioaren hurrenkeran.

Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Karguaz jabetzea.

Izangaiek izendapenean zehazten den egunean jabetu beharko dute lanpostuaz.

Polizia nahiz udal agente lanpostuaz jabetzeak berarekin ekarriko du praktiketako funtzionario izateari uztea.

Ezarritako egunean lanpostuaren jabetza hartzen ez dutenek kasuan kasuko udalean sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan gertatu denean izan ezik.

Hautaprobak gainditu eta deialdiaren xede diren lanpostuetarako izendatuak izan ondotik, dagokien udalean sartu eta funtzionario bihurtzen diren izangaiak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatu eta alta emanen zaie araubide horren babesean, salbu eta jadanik afiliaturik badaude edo Nafarroako Administrazio Publikoetako Eskubide Pasiboan eta Osasun eta Gizarte Laguntzako bertze araubide batean izena emanak badira; orduan, eta izendatu aitzin, babes araubide horretan segitzea hautatzen ahal dute edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatzea.

10.–Errekurtsoak.

Epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal da, Barneko zuzendari nagusiari zuzendua, errekurtsuaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdiaren, oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutakoen kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, errekurtsuaren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 29an.–Barneko zuzendari nagusia, Francisco José Fernández Elizalde.

I. ERANSKINA

Eskabidea

Izen-abizenak:, adinez nagusia, NAN zenbakia (edo baliokidea):,
jaioteguna:, jaioterria (herria):, probintzia:, nazionalitatea:
....., helbidea (herria):, probintzia:, kalea:
....., zenbakia:, solairua:, letra:, posta kodea: telefonoa:, lantokiko telefonoa:
....., sakelako telefonoa:, posta elektronikoa:

ADIERAZTEN DU:

Barañaingo Udaltzaingoko polizia izateko 3 lanpostu, Baztango Udaleko polizia izateko lanpostu 1, Burlatako Udaltzaingoko polizia izateko 4 lanpostu, Cascanteko Udaleko udal agente izateko 2 lanpostu, Lizarrako Udaltzaingoko polizia izateko 3 lanpostu, Uharteko Udaleko udal agente izateko lanpostu 1 eta Mendabiako Udaleko udal agente izateko lanpostu 1 oposizio bidez betetzeko deialdian onartua izatea eskatzen duela.

Deialdian parte hartzea eskatzen dut, ondoko txanda eta udaletan:

BARAÑAIN		BAZTAN		BURLATA		CASCANTE		LIZARRA		UHARTE		MENDABIA	
IREKIA	MURRIZTUA	IREKIA	MURRIZTUA	IREKIA	MURRIZTUA	IREKIA	MURRIZTUA	IREKIA	MURRIZTUA	IREKIA	MURRIZTUA	IREKIA	MURRIZTUA

Interesdunek berriaz eskatu dituzten txandetan hartuko dute parte, ez besteetan.

–Ez duela karguan aritzea galarazten dion eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

–Indarra duten xedapenetan ezarritako bateraezintasunerako arrazoirik ez duela.

–Dolozko delitu bat dela kausa ez dela kondenatua izan, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua ere, eta ez dela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako araei jarraikiz.

–Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe dela.

–Azterketa eskubideak ordaindu dituela deialdian ezarritako baldintzetan eta horren gordekina erantsi duela, edo erantsitako agirien bidez frogatzen duela tasa ordaintzetik salbuetsita dagoela.

–Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, 3.1 eta 3.2. oinarriekin bat.

–Nafarroako Gobernuaren Barne Zuzendaritza Nagusiari berriazko baimena ematen diola deialdiaren 7.4.2 oinarrian aurreikusitako egiaztatzea eskatzeko.

Horiek horrela,

Eskaera hau ontzat har dezatela eta aipatu deialdian onar dezatela eskatzen du.

Iruñean, 2014koaren(e)an.

(Sinadura)

NAFARROAKO GOBERNUA. BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIA.

II. ERANSKINA

Lehen probarako gai zerrenda

Zati orokorra:

- 1.–Nafarroako geografia: Nafarroako natur ingurunearen ezaugarriak. Biztanleria eta biziguneen sistema: hiriguneak.
- 2.–Nafarroako geografia: Nafarroako baliabideak eta produkzio jarduerak. Nekazaritzako, industriako eta hirugarren sektoreko eremuak. Eskualdez eskualdeko azterketa.
- 3.–Nafarroako Historia: Historiaurretik erromanizaziora. Iruñeko eta Nafarroako Erresumaren sorrera gizarte feudal baten testuinguruan. Nafarroako Erresuma Frantzia eta Espainia artean.
- 4.–Nafarroako Historia: Nafarroa Monarkia hispanikoan sartzea (XVI.-XVIII. mendeak). Nafarroa mundu garaikidean. (XIX.-XX. mendeak).
- 5.–Espainiako 1978ko Konstituzioa: Atariko titulua. I. titulua. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
- 6.–Europar Batasuna: erreferentzia historikoa. Europar Batasuneko erakundeak.
- 7.–Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa: egiteko prozesua. Izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Atariko titulua.
- 8.–Nafarroako foru erakundeak. Parlamentua edo Nafarroako Gorteak: Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren Testu Bateginaren IV. titulua “Parlamentuaren antolaketa” eta V. titulua “Funtzionamendurako arau orokorrak”. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea.
- 9.–Nafarroako toki entitateak: tipologia eta antolaketa. Toki erakundeen autonomia. Toki erakundeen eskumenak. Nafarroako toki entitateen antolaketari eta administrazioari buruzko ideia orokorrak. Nafarroako Administrazio Auzitegia.
- 10.–251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Zati berezia:

- 11.–8/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa.
- 12.–8/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako Poliziei buruzkoa.
- 13.–Polizia-deontologia: etika, moral eta deontologia kontzeptuak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Europako Kontseiluaren Ministroen Komitearen 2001/10 Gomendioa, poliziaren etikaren Europako kodeari buruzkoa.
- 14.–Zigor Zuzenbidea: Kontzeptua. Zigor Kodea: Atariko titulua: zigor bermeak eta zigor legearen aplikazioa. I. liburua I. titulua. Zigor zuzenbideko arau-haustea. II. titulua. Delitu eta hutsegiteei dagokienez erantzukizun kriminala duten pertsonak.
- 15.–Zigor Zuzenbide Prozesala: atxiloketa. Toki itxian sartu eta hori miatzea; liburuak eta paperak miatzea; eta idatzizko posta eta posta telegrafikoa geldiarazi eta irekitzea.
- 16.–1/1992 Lege Organikoa, otsailaren 21ekoa, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzkoa.
- 17.–9/1983 Lege Organikoa, uztailaren 15ekoa, Biltzeko eskubidea arautzen duena.
- 18.–8/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Nafarroako ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena.
- 19.–30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. IX. titulua. Zehatzeko ahalmena.
- 20.–1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Zehapen ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duena.

III. ERANSKINA

Bigarren probari dagozkion ariketak

1. Bankuko press-a, edo pisua jasotzeko proba, 36 Kg gizasemeentzat eta 18 Kg emakumezkoentzat.

Deskribapena: banku batean etzanda, ahoz gora, izangaiak 36 edo 18 kiloko pisua goratu behar du, 60 segunduan, ahal duen aldi guztietan. Bi eskuekin goratuko du pisua, eta barra hartuko du sorbaldeen zabalera baino pixka bat zabalago (barrari ahurraz heldu eta behatzak itxirik). Ariketa honela egingen da: hasieran barrak bularra ukitzen du, ukondoak flexionaturik, eta gero ukondoak erabat luzatzen dira bertikalean jarri arte. Proba hau egiteko saio bakarra izanen dute izangaiak.

Ariketa hau egiteko 60 segundu emanen dira gehienez. Izangaiak deialdian ezarritako moduan bukatzen ahal du ariketa, eta ordu arte egiazki egindako altxaldi baliadunen kopurua kontatuko da puntuaziorako.

Ariketaren hasieran ukondoak flexionatuak egonen dira eta barrak bularra ukituko du.

Oinak lehenbiziko goratzean nola dauden, horrela mantenduko dira ariketa osoan, aldatu gabe.

Ukondoak erabat luzatu ezean edo ukondoan flexio bakoitzean barrarekin bularra ukitu ezean, jasoaldia baliogabetuko da eta, beraz, ez da kontatuko.

Ariketa kasu hauetan bukatuko da:

–Izangaiak ukondoak flexionaturik dituela, ariketa gelditzen badu barra bularrean bermatuz.

Puntuazioa: egindako errepikapenen arabera izanen da, eskala honi jarraikiz:

PUNTAZIOAK/ ERREPIKAPENAK	EZ GAI	5 PUNTU	6 PUNTU	7 PUNTU	8 PUNTU	9 PUNTU	10 PUNTU
GIZONAK	25 baino gutiago	25etik 30era bitarte	31tik 35era bitarte	36tik 40ra bitarte	41etik 50era bitarte	51etik 59era bitarte	60 edo gehiago
EMAKUMEAK	25 baino gutiago	25etik 28ra bitarte	29tik 33ra bitarte	34tik 39ra bitarte	40tik 44ra bitarte	45etik 49ra bitarte	50 edo gehiago

2. Uretan aritzeko gaitasunari buruzko proba. (50 metro estilo librean, tarte batzuk ur azpitik eginez).

Deskribapena: 25 metroko igerileku batean estilo librean igeri egitea, joan eta etorri.

Proba hau egiteko gehieneko epea hau da: 55 segundo gizasemeentzat eta 58 segundo emakumezkoentzat.

Ezin izanen da erabili urpeko betaurrekorik, ezta bertze baliabiderik ere, baina bai igeri egiteko betaurrekoak.

Gauzatzea: ateratzeko seinalea entzun ondoan, izangaia uretan murgildu eta 50 metro egingen ditu igerian, ur azalean nahiz urpean, ahalik eta denbora laburrenean. Irteeratik 10 metrora urpean egingen du igeri, bi metro, horretarako propio jarritako tartean, eta gero kontrako paretaraino segituko du, han buelta eman eta irteerara itzuliko da. Arestian aipatu tartera iristean berriz ere urpean egingen ditu bi metro, eta paretaraino segituko du gero.

Saio bakarra egingen da.

Saioa baliogabetzat joko da, eta baztertzeko arrazoi, baldin eta izangaiak:

–Kortxo-ilarak edo igerilekuaren alboko kaleak nahiz ertza euskarri moduan edo abiada hartzeko erabiltzen baditu.

–Igerilekuaren hondoa ukitu edo hura erabiliz abiada hartzen badu.

–Kalez aldatzen bada.

Puntuazioa: ondoko eskala honen arabera izanen da (segundoetan emandako denbora, ehunenak kontatu gabe).

PUNTAZIOAK/ DENBORAK	EZ GAI	5 PUNTU	6 PUNTU	7 PUNTU	8 PUNTU	9 PUNTU	10 PUNTU
GIZONAK	55" edo gehiago	54"9tik 50"era bitarte	49"9tik 45"era bitarte	44"9tik 41"era bitarte	40"9tik 37"era bitarte	36"9tik 33"era bitarte	32"9 edo gutxiago
EMAKUMEAK	58" edo gehiago	57"9tik 54"era bitarte	53"9tik 49"era bitarte	48"9tik 45"era bitarte	44"9tik 40"era bitarte	39"9tik 36"era bitarte	35"9 edo gutxiago

3. Bizkortasun proba. (Barrow testa).

Abiatzeko jarrera: zutik zutoinaren ondoan, irteera marraren atzean.

Gauzatzea: probaren helburua da ahalik eta lasterren egitea “zortzi” baten itxurako zirkuitu bat, bost zutoinez mugatua. Horieta lauk 8,66 bider 5 metroko laukizuzen baten erpinak seinalatzen dituzte eta borzgarrena erdi-erdian dago (ikus grafikoa). Izangaiek bi aldiz egin behar dute zirkuitua, behin alde batera behin bertzera (A eta B ibilbideak grafikoa). Izangai bakoitzak bi saio izanen ditu ibilbide bakoitzean, saioa baliogabetzat hartzen bada.


Saio baliogabea izanen da honako hau gertatzen denean:

- Izangaiek zutoin bat botatzen duenean.
- Izangaia ibilbidetik ateratzen denean.

Ondokoak dira kanporatzeko arrazoiak:

- Ibilbideetako batean (A edo B) bi saio baliogabe egitea.
- Probarako gehienez aurreikusitako denbora gainditzea.

Puntuazioa: izangaiek bi ibilbideak (A eta B) egiteko ematen duten denbora batuko da, kontuan hartuta ibilbideak bukatzen direla izangaia irteera marratik berriz pasatzen denean. puntuazioa ondoko eskala honen arabera izanen da (segundoetan emandako denbora, ehunenak kontatu gabe).



Abiadura - bizkortasuna (Barrow testa)

PUNTUAZIOAK/ DENBORAK	EZ GAI	5 PUNTU	6 PUNTU	7 PUNTU	8 PUNTU	9 PUNTU	10 PUNTU
GIZONAK	25"8tik goiti	25"4tik 25"7ra bitarte	25"0tik 25"3ra bitarte	24"7tik 24"9ra bitarte	24"4tik 24"6ra bitarte	23"9tik 24"3ra bitarte	23"8 edo gutxiago
EMAKUMEAK	27"8tik goiti	27"4tik 27"7ra bitarte	27"0tik 27"3ra bitarte	26"6tik 26"9ra bitarte	26"2tik 26"5ra bitarte	25"8tik 26"1ra bitarte	25"7 edo gutxiago

4. Erresistentzia proba. (Course Navette-ren testa).

Gauzatzea: izangaiek 20 metroko luzera duen joan-etorriko ibilbide bat egin behar dute zinta magnetofoniko batek emandako seinale akustikoen bidez markatutako erritmoari jarraikiz, ahalik eta joan-etorri gehien eginez. Izangaiek, seinalea entzutearekin batera, ibilbidearen bi muturrak seinalatzen dituzten marrak zapaldu beharko dituzte, lehenik bat eta gero bestea. Hortaz, izangai guztiek erritmo berean egin beharko dute lasterketa, eta ez da onartuko inork lasterketaren erritmoa gainditzea. Buelta emanen da oin baten gainean bermatuz eta marra zapalduz. Zintak soinua emanen du tarte erregularren arabera. Probaren hasieran abiadura motela izanen da, baina gero eta azkarrago eginen da. Proba hau egiteko saio bakarra izanen dute izangaiek.

Testaren helburua da zinta magnetofonikoak markatutako erritmoari jarraitzea eskatutako tarteak bete arte. Ondoren azaltzen diren kasuetan, proba bukatu eta ordura arte pasatako denbora kontatuko da,

–Izangaia gelditzea.

–Izangaia bere kaletik ateratzea.

–Izangaiek ibilbide oso bat bukatzeko dagoen muturreko marra ez zapaltzea.

–Izangaiek hiru aldiz jarraian ez iristea muturreko marra zapaltzera seinale akustikoak agintzen dionean. Marratik metro bateko tartera egotea onartuko da, seinaleak jotzen duen unean. Baina horretarako, seinalea entzuten denean segurtasun eremuaren barrenean egon beharko du.

–Izangaia marjinaren barrenean ez badago seinalea entzuten denean, behin bakarrik.

Puntuazioa: izangai bakoitzarentzat proba bukatzen den arte pasatako denbora-tarteen arabera izanen da (tarte bakoitza minutu batekoa da gutxi gorabehera), ondoko eskala honi jarraikiz:

PUNTUAZIOAK/ TARTEAK	EZ GAI	5 PUNTU	6 PUNTU	7 PUNTU	8 PUNTU	9 PUNTU	10 PUNTU
GIZONAK	10 baino gutiago	10-11	11,5	12	12,5	13	13,5
EMAKUMEAK	8 baino gutiago	8-9	9,5	10	10,5	11	11,5

5. Indar-erresistentziaren eta koordinazioaren proba. (Alboko jauzien testa).

Deskribapena: lurretik 20 zentimetrora dagoen listoi bat jauziko da, 30 segundoz etenik gabe, oinak bata bertzearen ondoan edo parez pare daudela. Zenbat jauzi egiten diren kontatuko da.

Jauziak egiteko 30 segundo emanen dira, gehienez ere. Balio gabeko saioa izanen da jauziaren erritmoa etetea 30 segundo egin baino lehen, jauzi egitetik geldituta, non ez duen izangaiak proba bukatutzat ematen. Ordu arte egindako jauzi baliiodunen kopurua hartuko da kontuan puntuatzeko.

Abiatzeko jarrera: izangaia zutik jarriko da, listoiaren ondoan alboka, bi oinak elkarturik edo pare-parean. Kontrolatzaileak "ya" erratean, jauzten hasiko da, etenik gabe.

Bi saio egiten ahal dira. Bigarrena lehenbizikoa baliogabea izan baldin bada egingen da soilik. Gutierrez bi minutuko pausaldia utziko da bigarren saioa egin baino lehen.

Saio baliogabea izanen da izangaiak honako hauek egiten baditu:

–Listoia botatzen badu.

–Jauzi bat errepikatzen badu listoiaren alde berean.

–Jauziaren erritmoa eteten badu 30 segundo egin baino lehen, jauzi egitetik geldituta, non ez duen izangaiak proba bukatutzat ematen.

–Jauzi bat bukatuta listoia oinen artean gelditzen bazaio.

–Lurra bi oinekin batera ukitzen ez badu.

Puntuazioa: egindako errepikapenen arabera izanen da, eskala honi jarraikiz:

PUNTUAZIOAK/ ERREPIKAPENAK	EZ GAI	5 PUNTU	6 PUNTU	7 PUNTU	8 PUNTU	9 PUNTU	10 PUNTU
GIZONAK	30 baino gutiago	31tik 34ra bitarte	35etik 38ra bitarte	39tik 42ra bitarte	43tik 46ra bitarte	47tik 50era bitarte	51 edo gehiago
EMAKUMEAK	20 baino gutiago	21tik 23ra bitarte	24tik 26ra bitarte	27tik 29ra bitarte	30etik 32ra bitarte	33tik 35era bitarte	36 edo gehiago

IV. ERANSKINA

Deialditik baztertzeko arrazoi medikoak

1. Ikusmena. Begien sistema:

–Zuzendu gabeko begi zolitasuna:

–4/10 bi begietan, edo

–3/10 begirik okerreanean eta 5/10 hoberenean, edo

–2/10 begirik okerreanean eta 6/10 onenean.

–Ikuseremu monokularra: ezin izanen da plano horizontalean 120°-tik beherakoa izan, eta murrizketa nabarmenik gabekoa izanen da ikuseremuko meridiano batetik bertera.

–Diplopia.

–Diskromatopsia larriak.

–Estereopsi falta.

–Keratotomia erradiala.

2. Entzumena. Entzuteko sistema:

–500dik 3.000 Hz bitarteko frekuentzietan belarriren batean 45 dB-ko edo gehiagoko galera.

–Orekari loturiko alterazioak, edozein etiologiatakoak.

3. Mintzamina

–Afasiak, disfoniak, disfemiak (hitz toteltasuna), disartria eta diglosia iraunkorrak, polizia lanetan aritzea zaildu edo galarazten dutenak.

4. Giharren eta eskeletoaren aparatua:

–Artikulazioen baten galera anatomikoa edo ankilosia, eginkizunetarako duen eraginaren arabera.

–Prozesu artikularrak, eginkizunetarako duten eraginaren arabera, zeinahi etiologiaren ondorio direla ere.

–Eskoliosiak, 20° baino handiagoak.

–Zifosiak, 30° baino handiagoak.

–Espondilolisia, espondilolistesia, ornoen bategiteak eta ornoarteko diskoaren arazoak.

–Espondilitis ankilosantea.

–Paget-en eritasuna.

–Osteoporosia eta osteomalazia (eginkizunetarako duen eraginaren arabera).

–Fibromialgia.

–Deformazio anatomikoak, eginkizunetarako duten eraginaren arabera.

5. Digestio aparatua:

–Crohn-en eritasuna eta kolitis ultzeraduna.

–B eta C hepatitis aktiboa izatea edo birusaren eramailea izatea.

–Gibeleko gutxiegitasuna, ebaluazio mahaiak baloratu beharrekoa.

–Gibeleko zirrosia.

–Behazun-zirrosi primarioa.

–Pankreatitis kronikoa.

–Fibrosi kistikoa.

–Sabelaldeko paretako etena, ebaluazio mahaiak baloratu beharrekoa.

–Kakari eutsi ezina.

6. Bihotz-hodietako sistema:

–Bihotzeko gutxiegitasuna, maila guztietan.

–Arritmiak eta blokeoak: aurre-eszitazio sindromea eta bihotzaren erritmoaren edo kondukzioaren alterazio mota guztiak, salbu eta arritmia sinusala, BGE edo BE solteak, 1. mailako blokeo AB, Eskuineko Adarraren Blokeo Osoa eta Ezkerreko Adarraren hemiblokeoak.

–Kardiopatia iskemikoa, maila guztietan.

–Balbulopatiak.

- Miokardiopatiak.
- Perikardiopatia kronikoak.
- Biriketako hipertentsio primarioa eta sekundarioa.
- Arterietako iskemia kronikoaren sindromea.
- Arterietako hipertentsioa (TAS > 140 eta TAD > 90).
- Arterietako hipotentsioa (TAS < 90 eta TAD < 45).
- Zainen eta baso linfatikoen gutxiegitasuna.

7. Arnas-aparatua:

- Arnas aparatua afekzio kronikoak (Bronkitis kronikoa, BBEK, Enfisema, Bronkiektasiak).
- Pleurako isuri berrituak.
- Berezko pneumotorax berrituak.
- Eritasun interstizialak eta/edo biriketako fibrosia.
- Asma eta bronkioetako hipererreaktibotasuna.

8. Nerbio sistema:

- Epilepsia.
- Esklerosi anizkoitza eta bertzelako eritasun desmielinizanteak.
- Neurona motorraren eritasunak.
- Ataxiak.
- Buruko eta integratzaileko funtzioen alterazioak (arrazoitze abstraktoa, oroimena, adimena eta funtzio betearazleak).
- Parkinson-en eritasuna eta bertzelako alterazio estrapiramidalak.
- Odol-hodien afekzio iskemikoak, hemorragikoak edo malformazioen baten ondoriozkoak.
- Miastenia larria eta juntura neuromuskularraren bertzelako arazoak.
- Bertigoak.
- Siringomielia.
- Hidrozealia.
- Miopatiak.
- Nerbio-sistema zentralaren lesioaren ondoriozko paralisia.
- Paralisi periferikoak, funtzioetan duten eraginaren arabera.
- Nerbio-sistema periferikoaren eritasunak, funtzioetan duten eraginaren arabera.
- Neke kronikoaren sindromea.
- Anosmia.
- Beste alterazio motor batzuk (tikak, estereotipia motorrak, loaren alterazioak), giza harremanetan eta lanean izan dezaketen eraginaren arabera.

9. Alterazio psikiatrikoak:

- Buruko alterazio organikoak, prozesu automugatuak eta itzulgarriak kenduta.
- Buruaren eta jokabidearen alterazioak, substantzia psikotropikoen kontsumoaren ondoriozkoak (alkohola barne).
- Eskizofrenia eta bertzelako alterazio psikotikoak.
- Gogo-aldartearen alterazioak (jokabide bipolarrak, alterazio depresibo errepikariak, depresioaldi larria, alterazio distimikoak).
- Antsietate-alterazioak, ondorio kliniko nabarmena baldin badute.
- Barne-bultzaden kontrolaren eta izaeraren alterazioak, giza harremanetan eta lanean eragina dutenak.

10. Ugaltze eta gernu aparatua.

- Giltzurruneko gutxiegitasuna, bilakaera eta pronostikoaren arabera.
- Gernuari eutsi ezina.
- Giltzurruneko polikistosisa.

11. Sistema endokrinologikoa:

Ardatz hipotalamo-hipofisarioaren alterazioak.

- Hipertiroidismoa eta hipotiroidismoa, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Addison, Cushing, feokromozitoma eta giltzurrunen gaineko guruinen bertzelako alterazioak.
- Hipoaldosteronismo primarioa eta sekundarioa.
- Mellitus diabetesa.
- Adenomatosi endokrino anizkoitza.
- Hipoparatiroidismoa eta hiperparatiroidismoa, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

12. Larrua, fanerak eta guruin exokrinak:

–Orbainak eta azalaren prozesu kronikoak, baldin eta haien hedadura, funtzioetan izan dezaketen eragina eta kokapena ikusirik, polizia lanetan aritzea eragozten baldin badute.

13. Odola eta organo hematopoietikoa:

–Muineko aplasia, gaueko hemoglobinuria paroxistikoa, sindrome mieloproliferatiboak, anemia hemolitiko kronikoak, β -talasemia anemiadunak.

- Linfomak, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Sindrome linfoproliferatibo kronikoak, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Mieloma anizkoitza eta Waldeström-en eritasuna.
- Hemofiliak eta hemostasiaren bertzelako alterazioak.
- Inmunoeskasiak.
- Esplenektomia.
- Antikoagulatzaileak (Heparinak, Sintrom), Interferon, kortikoideak edo EPO erabiltzen dituzten tratamendu kronikoak.

14. Bestelakoak:

- GIB birusaren antigorputzen eramailea.
- Amiloidosia.
- Kolagenosia.
- Lupus eritematoso sistemikoa.
- Artritis erreumatoidea.
- Esklerodermia.
- Sjögren-en sindromea.
- Baskulitisa, ebaluazio mahaiak baloratu beharrekoa.
- Obesitatea (GMI > 25).

15. Arau orokorrak:

–Ebaluazio mahaiak baloratuko ditu baztertzeko moduko patologiak, funtzioetan duten ondorioen arabera eta polizia lanetan aritzeko pronostikoaren arabera.

–Prozesu neoplasikoetan eta organoen transplanteen kasuetan, ebaluazio mahaiak gaitasuna baloratuko du, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

–Funtzioetan eragina duten gorputzeko bertzelako aparatu edo sistemetako afekzioak, balorazio mahaiaren iritziz, polizia lanetan aritzea eragozten baldin badute.